

# ANTZERU



EVSKALANTEZERTAREN  
ILEROKOAN

## “USTEGABEKO POZA”

Amonafiz'tar Ander'ek tajutua.

16'en Zenbakia

1933—Joñaila.

II URTEA.

# ILEKO BEŔIAK.

## Euskel-Antzertia noruntz?.....

Gure teatrotxoa, azten dijoan batera, zer nolako joera artu bear duan adieraztea, ajola aundiko gauza degu. Antzerkigile, idazle gazte ta irakurle oroi ortaz jardutea atsegin eta onurakor izango zaie. Erabili zugun bada gai au. Gure Antzertia, auferapen bidetik, erti-arauz eta kristau-zilegigoaren mendean zuzentzea guzion artean iritxi bear degun elburua bai-da.

Teatroari buruz idazle jakintsuak esandako iritzi-miritziak aitatzea bearezkoa zaigu. Beste efialdetan jazoriko gertakizunak jakitea ere bai. Ez du inork ukatzen Antzertiak duan indafa gogai ta asmoak zabaltzeko, yakintza noranai eŕiraño eramatearen ta azkenik emen, euskera sendotu ta indartzeko. Euskel-Antzertiaren oñafi, kristautasuna gezurtapalkeri gabe ta aber-tzaletasuna bedi. Nai ta nai ez efikoa bear du izan.

Egitzat jo ditezke erderaz dijoazkizuten lefo auk: "El teatro renuncia a su privilegio y a su gloria cuando deja de

ser un arte popular y aspira al sufragio de un corrillo escogido de "high brows". Ta Gheon pantzetar antzerkigile ospatsuak idatzi du: "Rien de moins catholique, rien de moins chrétien, rien de moins humain qu'un art volontairement abstrus, exclusivement réservé au très petit nombre. Rien non plus de moins viable, de moins durable, faute d'échange et d'aération."

Antzertia egin zugun bada efikoi; erakusle ta alai. Teatroa izan oi da gañera efitzar altsuetan, eutsigafi; ta txiki ta menperatuetan altxagafi. Basi'n Komunistak efi-taldeak erdi goseak ba dauzkate ere, antzerki-jaien ta jolasen bidez Gobiernoaren alde lotzen dituzte.

Poloni'pean dagon Ukraina'n 1.400 antzezlari-talde daude "Proswita" deritzan batzan bilduak. Trieste ingurumaiko eslovenotafak "Narodni Nom" antzerti-zaleen alkartea dute. Irlandatafak ere azkatasuna lortu al izateko Teatroari eskatu zioten laguntza. Patrick Pearse'n "The singer" antzerkia sin-feindaren matxinadaren mezulari izan zan. Catalunya'n ere *Teatre Catalá*'ko

# “USTEGABEKO POZA”



Amonaiz'tar Ander'ek tajutua.







# “USTEGABEKO POZA”

Amonaiz'tar Ander'ek tajutua.

## ANTZEZLARIAK:

Amale. . . . .	Etxeko alaba.
Madalen . . . . .	Neskame bal.
Txuful. . . . .	Nagusia.
Kokotx . . . . .	Mutiña.
Balantx . . . . .	Mozkor-alproja.
Joxe Mari . . . . .	Mikeletetako kaboa.
Leontxio . . . . .	Mikeletea.
Tomas . . . . .	Kontrabandista.
Anñon . . . . .	Mutil koxkroña.

## LENBIZIKO AGEÑALDIA.

Alpargateri-denda batean nagusi-mofoyak espartzin-josten agertzen dira.

- Txuful —Berandu zetoñek gaur gure kontrabandista.  
Kokotx —Bai, onezkero etofi bear zuan.  
Txu. —Zerbait gertatu ez bazaio!  
Kok. —Ez litzake afitzekoa izango.  
Txu. —Beti baditek zerbait.  
Kok. —Lanbide kaxkaña da kontrabandista oiena.  
Txu. —Esango nitek.  
Kok. —Bedoñek eñezago irabazten du, bai, oyek kontraban-  
duan pasatzen dutena patxaran salduta.  
Txu. —Zer esan dek? Neronek ere zer esturasun pasatzen  
dituan baekikek!  
Kok. —Ez Tomas'ek aña.  
Txu. —Nun ote dabil! Gaur ere Mikeleten batek esturasu-  
nen bat emana izango dek.  
Kok. —Bai ote?  
Txu. —Bañan Tomas afapatuko duen Mikeleterik ez dek  
sortu.

- Kok. —Alaxe da. Berofi lenago arapatuko luteke bai.  
Txu. —Ixilik ago, beti ofen bildur bizi nauk eta.

## BIGAREN AGEĀALDIA.

### Lengoak eta Tomas.

*(Tomas azaltzen da bizkaĀean zaku baten baĀenen zato-ardoarekin ta iru edo lau botĀla poltzĀlĀetan ditula.)*

- Txu. —Ara emen bera.  
Kok. —Zein, Mikeletea?  
Txu. —Ez, Tomas.  
Kok. —Ori esan!  
Tomas —*(Leiotik begiratuaz)* Sartu al liteke?  
Txu. —Auffera, auffera!  
Tom. —*(atetik sartuaz)* Noizpateko batean emen nauk ofatĀlok.  
Txu. —Ondo atera al-zaik gaurko lana?  
Tom. —BeĀere baĀo okeĀago, motell!  
Txu. —Zer gertatu zaik bada?  
Tom. —*(Zatoa, botelĀk eta danak maigaĀian utzĀaz eta izerdia legortuaz)* BanatxetoĀeken beti bezela menditik efi aldera, ta NapaĀo'tik Gipuzkoa'n sartzeakin batean, ateratzen zaidak arkaitz batetik Mikeletea, ta... alto! geldi esanaz asten zaidak!, ni orduan mendian bera amilka!, Mikeletea atzetik segika!, eta alakorik batean, leitzazulo batean axaria bezela sartu ta an gorde nauk.  
Kok. —Zuk ondo jakin ango zuloak.  
Txu. —Bear ere bai.  
Kok. —Eta Mikeletea?  
Tom. —Ni leitzazulotik noiz aterako ote nintzan zai.  
Txu. —Eta nolaz etofi aiz onera?  
Tom. —Beste aldeko zulo batetik aterata.  
Txu. —Au dek piztiya au!  
Tom. —Gaur bezelako lafitasunik ez diat nere bizi guzian artu.  
Txu. —Nekatua etofiko aiz ta oa lenbailen etxera.  
Tom. —Bai, banatxiok. Artu ditzak oik guztik *(emanaz)*.  
Txu. —Kontuk gero egingo dizkiagu.  
Tom. —Bai, bai, egingo dizkiagu.  
Txu. —Gero arte.  
Tom. —Gero arte, bai.  
Kok. —Agur, Tomas.

## IRUGAREN AGEÁLDIA.

### Txuñut, Kokotx ta Madalen.

(Tomas ateratzen asteen, atea dan-dan jotzen dute eta Mikeletea dalakoan, Tomas'ek leyotik salto eginda itzul egiten du).

Txu. —(Kokotx'i) Ia, zein dan.

Kok. —Mikeletea ote da?

Txu. —Orixe bear giñikek orain (*satoa ta botelak sartuaz*) sartu ditzagun azkar oik bafunera.

Madalen —Egun on.

Txu. —Baita zuri ere.

Kok. —Ongi etofi.

Mad. —Zer gertatzen da emen atea itxita eukitzeko?..... Kontu ixilen batzuek, e?

Txu. —Onek esango ditunak (*pañez*).

Kok. —Zu beti umore onekoa.

Txu. —Au beti gazte.

Kok. —Nai, bai.

Mad. —Aizak, artuko ukek nere patxara.

Kok. —Baita nere sasoya ere.

Txu. —Utzi diozu ofi. Zeñen bila zatoz, izaña?

Kok. —Izafa! diz-diz-gabekoa!

Mad. —Zure pañagafi nagola uste al-dezu edo zer? Ezta bada esertxo ere!

Tnu. —Ez kasorik egin, beti ofela aritu bear du Kokotz'ek eta.

Mad. —Bienke, Kokotx! Beretzat txoratu nagoala edo orlakoren bat usteko du gizajoak!

Txu. —Aizu, etzenduteke biko txaña egingo.

Mad. —Ori ez bezelakoak ostikoka dauzkat nik.

Kok. —Ametsetan bai.

Txu. —Asko dezute! Zer nai zenduke Malen?

Mad. —Neretzako alpargata txurik.

Txu. —Tori.

Kok. —Eñomerira al-zoaz?

Mad. —Zuri zer ajola dizu.

Txu. —Egon ari ixilik, Kokotx. Ta geiago zer nai zenduke?

Mad. —A! Kokotx'eren befitsukeriakin ia aztu zitzaizen. Nagusiak esan dit ia Napaño'ko, ñapa txuria ta ardo mea artu dituzuen.

- Txu. —Esan diozu baietz, txuria ta baita gofia ere badauzkagula.
- Mad. —Goxoa izango da, e?
- Kok. —Zu bezin goxoa ez da izango baño.....
- Txu. —Bai, bai, aukerakoa, bikaña.....
- Mad. —Esango diot. Zenbat da alpargatena?
- Txu. — Pesta bat.
- Mad. —Tori, ta orain agur, gero arte.
- Txu. — Zoaz ondo, moñona.
- Kok. —Agur panposa, liraña.
- Mad. —Puf! (*Kokotx'i eginda joaten da*).
- Kok. —Or dioa, entzun dituan lore zimelakin, esponja baño afoago egin-da.
- Mad. —(*lelotik pasatzerakoan*) Utikan, baldar petrala.

## LAUGAREN AGERALDIA.

### Txufut eta Kokotx.

- Kok. —Ja, ja, ja... izaña ta gaztea dalakoan sinistuta dioa, berogei urteko neska-zar traketz ori.
- Txu. —Egon adi ixilik, Maalen oraindik neskatxa gordiña zegok eta!
- Kok. —Orain ogei urte bai. Orain egoz-gogortu da, ta ofen urteak joan ziran.
- Txu. —Ireak befiz ez ditut beñere etofiko; alpargata bat bear dan bezela josten oraindik ez dek ikasi ta.
- Kok. —Oraintxe aspertu ere egin naiz, eta gogoak ematen dit, maiari ostiko bat emanda emendik aldegiteta.
- Txu. —Nai badek alde-egintzat, bañan mai oni pakean utzi akiok.
- Kok. —Lanbide arlotegorik au baño!.....
- Txu. —Gizona! lantegi au txaña al-da?
- Kok. —Ixilka ta kontrabandoan sartutako pañafa ta ardoa salduko ezpalitu, ez luke ez, alpargataritzakin bakafik berofek ere galtza befi asko egingo.
- Txu. —Bai, egiya dek, kontrabandoko pañar-saltze onek asko ematen ziak.
- Kok. —Esango nuke!
- Txu. —Ofen beaña badiat biziko banauk.



- Kok. —Nik eztakit zergatik baño, inguruko atso guztik zure patafa nai dute.
- Txu. —Bai, ala dek. Baño ez dakik ik zenbaterañoiko lafi ta esturasunak pasatzen dituan pafar-saltze onekin.
- Kok. —Araixkurik gabe eztago ezer.
- Txu. —Beti keskaz, beti bildufez; Mikeletetako kabo ori gu-re etxe inguruan jiraka asi zanezkero, ez jan eta ez lo egiten diat. Beti noiz baño noiz lotuta eramango naun pentzatzen.
- Kok. —Nai duelako. *Ñapa*-saltzea utzi; ta or konpon!
- Txu. —Utzi! Efez esaten dek...  
(*Leyoan batetik bestera pasatzen da kaboa*).
- Kok. —Ara bera! (*Lafi*)
- Txu. —(*Ikaraz*) Zein?
- Kok. —Mikeletetako kaboa!...
- Txu. —(*Zer egiten ez dakielela, estenez maya joaz*). A ma-darikatua, amar mile deabruk eramango al aute!
- Kok. —Joan da, joan da.
- Txu. —Ala ere! Egunen batean, alki gañean sustoz ilda bilatuko nazute.
- Kok. —Ez da gutxigotako.
- Txu. —Begiratu al-du onera?
- Kok. —Begiratu? Jan bear giñuzela zirudien.
- Txu. —Bertan lertuta geldituko al-dek.
- Kok. —Norbaitek esan ote dio berofek, kontrabandoko ñapa saltzen duala edo...
- Txu. —Tartean ez-ote dabil nere lengusu Balantx mozkor ori baztafak nastutzen?
- Kok. —Baliteke...
- Txu. —Ori egia balitz lepoa biurtuko nioke.

## BOSGAÑEN AGEÑALDIA.

### Lengoak eta Amale.

- Am. —(*Etxe barunetik atereaz*) Aita; zagi txikiko ñapa txu-ria ustu da, ta befiz ere hete bearko degu.
- Txu. —Ixilago itzegin zazu.
- Am. —Zer da? Kaboa agertu al-da?
- Kok. —Sei bider bai gutxienez.
- Am. —Gaur goizean, ataria garbitzen ari naizela izugafiz-

ko begiratuak egin dizkit.

Txu. —Emen ibili al-da?

Am. —Par-irudian nere begira egon da.

Kok. —Demontre txatxua.

Txu. —Gizon ofek galdu bear dit nere osasun guztia.

Am. —Ene! Oiek gizon epelak! Edozergatik ikarutzen zerate?

Kok. —Ez da gutxigotako.

Am. —A! Zenbat emango nuken galtzak izateagatik.

Kok. —Emakume guztien gogoa.

Am. —Txorakeri oiek utzita botilak betetzera noa. (*Sartuaz*)

Txu. —Madarikatutako ñapa-saltzea! Ik kendu bear diak oraindik neri bizia.

Am. —Jesus! Oiek gizon aulak!

Txu. —Bai, bai, aterako dizkitzu aulerik, Mikeletetako kabo ofek.

## SEIGAREN AGEÑALDIA.

### Txuñut, Kokotx ta Balantx.

Kok. —Emen dek betiko Balantx.

Txu. —Zein, zein?

Kok. —Zure lengusua.

Txu. —Orain ere eskera etorriko dek.

Kok. —Ematera ez beintzat.

Bal. —(*arlote jantzian*) Kaxo jaunak?

Txu. —Kaxo.

Bal. —Zer befi degu ba...

Kok. —Zafak befi.

Bal. —Gogotik ari zerate.

Txu. —Bearko.

Bal. —(*Izerdia legortuaz*) Au izerdia daukat.

Kok. —Lanean ler egiten ariko ziñan da.

Bal. —(*Exeri ta beriala altxiatz*) Ene!, zer da au, oi!

Kok. —Eztena sartu al zaizu?

Bal. —(*Eskuan artuaz*) Eztena ez jostofatza.

Txu. —Gizajoa.

kok. —Ori ez da ezer.

Bal. —Iretzat ez. Ik ez dek miñik artu ta. Ekatzue baso bat ardo.

- Kok. —Dagoaneko egafitu al aiz?  
Bal. —Ixilik ago, motel, odolak irakiten zeuzkat eta.  
Kok. —Oñenbeste, ardo ta ñapa eranezkeroko, ez dek afitze-  
koa, odolak eta esteak ere kiskaltzen eukitzea.  
Bal. —Nik zer eraten diat bada?  
Txu. —Al deken guztia.  
Bal. —Neri goizean itufiko ur otza gustatzen zaidak.  
Kok. —Musua garbitzeko bai.  
Txu. —Ñapetan itoko itzakek eta...  
Bal. —Aizak, or gordeta daukaken ortatik ekatzak kopatxo  
bat.  
Txu. —Etzeok geyo, dana saldu dek.  
Bal. —Kopa bat ere ez?  
Txu. —Ez.  
Bal. —Kopa zikin bat emateko oñenbeste ixtilu!  
Txu. —Gose dagoanari jana, ta egafi danari eraria emateko  
ez diat kupidik, bañan i bezelako mozkor-alper bateri  
ematea etziak biotzak laguntzen.  
Kok. —Ederki esana.  
Bal. —Gizona!  
Txu. —Lenagokoak ere zor dituk gañera.  
Bal. —Batean ordainduko dizkiat zor guztiak.  
Kok. —Aizerik ez dan urtean.  
Txu. —Geyago etxe ontara ez etortzeko itza ematen badiak,  
oraindañoko zor guztiak barkatuko dizkiat.  
Bal. —Kopa bat eman nai ez-badiak, besterik ez bada ere  
ekatzak pesta bat.  
Txu. —Begiratu zak, Balantx. Ik uste dek nere denda diru-  
-etxe edo Bankuen bat dala, eta nere etxean alki zar au  
beste Bankurik etzeok, eta etzayak ongi iruditzen i be-  
zelako alper bateri ezer ematea.  
Bal. —Ni alpefa?  
Txu. —Naikoa diagu; ara or atea ta ortikan kalerako bidea.  
Kok. —Ederki, oso ederki.  
Bal. —Lengusu bati egiteko aziua ez dek ori.  
Txu. —Ua, ua beñiz ere ispitzara, ni galtzeko egiñalak egitera.  
Bal. —Zein, ni?  
Txu. —I bai, i. Ua beñiz ere Mikeleteari, nik kontrabandoa  
saltzen detala salatzerako, bañan i aizela bitarte neri zer-  
bait gertatzen bazaidak, txiki-txiki eginda utziko aut.

- Bal. —Ik zein eskukin?  
Txu. —Oyekin. (*Altxa ta berugana joanez*).  
Kok. —Bañan gizona, zoaz emendik.  
Bal. —Ez diat nai.

## ZAZPIGARĒN AGEĀALDIA.

### Lengoak eta Amale.

- Am. —Zer da au?  
Txu. —Ez dakit nik baztafak naspilatzeraz zertan etortzen dan onera.  
Am. —Bañan beti ofela ibili bear al-dezu, Balantx?  
Bal. —Ez nâiz bada geiago etofiko.  
Txu. —Anbat zan sekulan sartu ezpaitzan.  
Bal. —Ederki zeok. Gogoratu bear dek ofatiok! (*Joaten da*)  
Txu. —Joan adi, joan adi, mozkofondo alena!  
Kok. —Ariyo Balantx.

## ZORTZIGARĒN AGEĀALDIA.

### Kokotx, Txufut, Amale ta Joxe Mari.

- Am. —Zertatik zenduen ixtilu ori?  
Txu. —Beti bezela eskean, ardua, ñapa ta pesta bat bear ditula asi zait eta.....  
Kok. —(*Leioan kaboaz azaltzen da*). Nagusia! Kaboal!  
Txu. —Orixe palta giñiken oraintxen. (*Bilduñez*).  
Kok. —Ori arpegi beltza dakarki!  
Txu. —Galdua naiz! Zer egin bear det orain?  
Am. —Bañan ofenbesteko bildufa ematen al dizue kaboak?  
Txu. —A, gajoa! Dantzan astea nai al dezu? Zoaz azkar ba-funera ta gorde ditzazu azkar ñapa-botila guztik.  
Am. —Ja, ja! ondo mutil jatofa da mikeletetako kabo ori. (*Sartzen da*).  
J. M. —(*Leiotik*) Ori dek mirabea ori!  
Kok. —Onera dator.  
Txu. —E? onera? Goazen emendik. (*Biak sartzen dira*).  
J. M. —(*Mikeletako kaboaz*)-(Atetik) Jainkoak egun on? (*Sartuaz*) Ez dago iñor. Nora joan ote dira? Oraintxe litzake nere biotzeko kufunarekin itz egiteko garairik onena.

Bañan lenbizi bere aitarekin egon nai nuke ta, nola asi ez baitakit.... Nola esango ote nioke bere alabatzaz oso txoratu nagoala? Eta aitak ni ondo artu aŕen, alabak maiteko ote nau? Oraintxe nere biotza bere tokitik atera naye an bezela saltoka dabilkit.... Au dek au estutasuna!... (*Txaloak joaz*) Eup! Egun on!

- Kok. —Ara zu al ziañan! zer nai zenduke?  
J. M. —Nun dezu nagusia?  
Kok. —Nagusia... egun oetan gaizki xamar dabil, da...  
J. M. —Gaizki? Zer du bada?  
Kok. —Ez dakit nik, ustegabe an eta noiz nai otx-ikarak eta naigabeak ematen diote ta.  
J. M. —Gizajoa.  
Kok. —Bai; alaxe da.  
J. M. —Deituko al diozu oneraño etortzeko?  
Kok. —Bai; bai (*Sartzen da*)  
J. M. —Emengo alpargatagilea gaixo? Aristian lanean emen ari zan-da.  
Txu. —(*ateratzen da*) Kaxo! (*dar-dar*).  
J. M. —Zer gertatzen zaizu gizona?  
Txu. —Gizon bat or leyo aldean ikusi orduko, nik eztakit zergatik baño ezin-egona egiten zait.  
J. M. —Gaixo bazaude beste egun batean etofiko naiz.  
Txu. —Obe izango dezu bai.  
J. M. —Aspaldian zurekin itz bi egiteko asmoetan nabil ta or leyotik pasatzerakoan ikusi zaitutelako sartu naiz.  
Txu. —Bañan alpargatagile arlote bat besterik ez banaiz ni?  
Kok. —(Au dek lafia au)  
J. M. —Ez dio ajolik (Zer aitzeki bilatuko ote det nik) Begira! (*Geritik bayoneta atereaz*) (*Txuruf'ek bayoneta ikustean Kokotx'en besoetara erortzen da ikaraz*) Auxe josiko bazenidake istanpatean, ausia daukat eta!...  
Txu. —Ia ikusi? I Kokotx ekatzak or daukaken ari gogofena. Ikusiko dezu zeñen ederki josiko dizuten.  
Kok. —(Bera bai josiko nukeala nik)  
J. M. —Lan asko egiten alda ba? (*Exerita*)  
Kok. —(Onek eztaki ezer)  
Txu. —Orla, orla, babañumentzako ateratzen degu beintzat eta.  
J. M. —Zuen lan au bai patxarakoa dala.

- Txu. —Zuek bai bizitzen zeratela patxaran.  
J. M. —Uste bai. Bazenekizu kontrabandista madarikatu oiek zer lanak ematen dizkiguten. (*Kokotx ta Txurüt'ek gogor jotzen dute maya*)
- Txu. —(Galduak gaituk Kokotx)  
J. M. —Lotsagabe oyek ez digute batzuetan arnasik artzen uzten ere
- Txu. —Gizona!  
J. M. —Ofengatik ikaragafizko gofotua diotet kontrabandistai, eta orlako bat afapatzen detanean ez naiz gelditzen kartzelara eraman artean.
- Txu. —(*Kiñuka ta zer egiten ez dakitela*) Eta zuk ofen biotz gogofa al dezu?
- J. M. —Kontrabandistentzako bai.  
Txu. —Jesus!  
Kok. —(*Alkitik altxa ta joan naiean*) Au ezin egona egin zait. Iztanpatean etxera noa.
- Txu. —Zertara?  
Kok. —Ama nola dagoen ikustera.  
Txu. —Exeri adi emen... gero joango aiz...  
J. M. —Bai, jauna, bai; Kontrabandista, eguzkiaren aipian sortu dan piztirik gaiztoena da guretzako.
- Txu. —Bai, ala da baña... Zuk ez dezu esango ori, or ñapa piskabat edo orla ixilka saltzen dutenangatik e?  
J. M. —Oyek dira okefenak... orlakoak ito egingo nituzke nik, ito...
- Txu. —Nereak egin dik oraintxe.  
Kok. —Ai, ai... (*Beatzari elduaz*).  
Txu. —Zer dek?  
J. M. —Zer du onek?  
Kok. —Ez da ezer, eztena sartu dek beatzean....  
Txu. —Banintxoan ba.... Ara nun dezun ederki konponduta (*Ematen dio Mikeleteari, bayoneta azala*).
- J. M. —Ederki dago. (*Bere tokian sartuaz*) A!  
Txu. —Zer dezu?  
J. M. —Zer detan? Kontrabandisten izena aituta utsak ere irakiten jartzen dizkit odol guztiak.
- Txu. —Ofenbesteraño?  
J. M. —Oyek kalte aundiak egiten dituzte gizartean. Erari madarikatua! Ofek ondatu bear du oraindik gure Euz-

kal-Efi zoragafia.

Txu. —Kopa bat edo beste eratia zer da bada? zuk ez al dezu eraten?

J. M. —Neri, otorduko garayetan sagardo pixka bat edo ardo tanto bat eratea gustatzen zait, bañan otordutik kanpora batean gosari txikia dala, amaiketako dala txiki-erdia ortik eta baxo erdia emendik ofenbeste eretik ez diote osasunari onik egiten.

Txu. —Guk baño geyago eranda egoten dira ofatiok ma-kiñabat!

J. M. —Erariyak menderatua dauka gure Euzkal-Efi guztia. Ofengatik ibiltzen gera erari zikin, gogor, txar, nazkagari oyek kontrabanduan pasa nairik ibiltzen diran o-  
yen atzetik.

Txu. —Ofenbesterañoko kalteak ekartzen ote ditu erariyak?

J. M. —Gu gertatzen geran bezela maiz gertatuko baziña Santa Ageda'ko Ero-etxean an ikusiko zenduke erari zaleen azkena zeñen erukaña izaten dan. Ango sendalari jaunak diote, an sartzen diran lautatik iru erariyak nastuta sartzen dirala.

## BEDERATZIGAREN AGEÑALDIA.

### Lengoak eta Anñon.

Ant. —(*mutil koxkofa sartzen da botila bat txanponaz joaz*)—(*Txuru'eri*) Aitak esan dit beti bezela txuria emateko.

Txu. —(*Ikaraturik*) Beraz beti bezela, e? Esan diok ez dago-  
la geiago.

Ant. —Txuririk ez-padago gofia emateko bada.

Txu. —To, ta esan akiok, ofelako gauzen eske onera ez etortzeko geiago (*ta ematen dio alpargata txuri bat*).

Ant. —Zer ematen dit neri au?

Txu. —(*alpargeta kenduaz*) Ekatzak onera ta txuririk bear ez badu, joan adi azkar emendik.

Ant. —Bañan erotu altzera?

Txu. —Zer esan dek? Aldegintzak emendik, bestela izugari bat emango diat.

Ant. —Nik zer egin diot berori?

Txu. —Ez al dek entzun joateko? lotsagabea, to! (*ta ematen*)

*dio ostiko bat*).

- Ant. —Ai, ai, ai.... nik esango diot aitari (*joaten da.*)  
Txu. —Ikusi al dezuz mukizu ori?  
Ant. —(*leiotik pasatzerakoan*) Txurutzale, ñapazale, pa-  
farzale.  
Kok. —Añapatzen badet elbarfituko det.  
J. M. —(Ta oik guztik onla dirala nere izafa oraindik atera  
gabe) Zenbat da nere kontua? (*altxata*).  
Txu. —Gizona, zaude ixilik! Ezer ez.  
J. M. —Eskefikasko, (au. ondo zio) (*exerltzen da osteru*)  
(Nere kufuna ikusi gabe ez noa emendik). Badakizu  
emen atsegin dagola?  
Txu. --Emen? Ez dakizu guzti-guztja.  
J. M. —Zer ba?  
Txu. —Gizona, denda au zaña da ta tximutxez eta arkakusoz  
betia baitago.  
Kok. —Alki ori beintzat.  
J. M. —Ez dit ajolik. Kontrabandisten atzetik gabiltzanean  
okeñagoko tokitan ibiltzen gera.  
Txu. —Bai, e? (onek ez dik emendik aldegingo).  
Kok. — (Nik ala uste.)  
J. M. Bayoneta josteagatik dirurik artu nai ez dezuneko  
erégalo bat egingo dizut.  
Txu. —Utzi zaiozu, gizona!  
J. M. —Bai, bai; aizak (*Kokotx'i*) oa aldameneko estankora  
eta ekañi zak an dagoen pururik onena. To (*ematen dio  
dirua.*)  
Kok. —Salto batean emen naiz.  
Txu. —Azkar ibili, e?  
Kok. —Bereala (... bereala ikusiko nauk ni geiago) (*atera-  
tzen da.*)  
J. M. —Oraintxe biok bakafik gelditu geranezkeroz, zuri as-  
paldian esateko dabilkidan gauz batetzaz itzegein bear  
dizut.  
Txu. —(Ene bada) Zer dezu?  
J. M. —Begira; neretzako lagun zar bat bezela zera zu.  
Txu. --Baita zu ere neretzat.  
J. M. —Nik ez jakin bear lenago ori.  
Txu. —Alaxe da ba.  
J. M. —Bada nik etxe ontara dakarkiten egitekoa... da...



## AMARGAREN AGEĀALDIA.

Txuñut, Joxe Mari mikeletea ta Madalen.

- Madalen —(*sartzen da dendan*) Emen naiz ni orain ere.
- Txu. — (*Au lana! Kiñuka*) Kaxo! nere izar edefa. Alpargata bila etofiko ziñan e?
- Mad. — Zer, alpargata? Len esan didazunaren bila nator, gi-zona.
- Txu. — A, bai, au burua (*ikaraz.*)
- Mad. — Txuritik ere probatzeko emateko esan dit.
- Txu. — Aizu mikelete, orlako mirabe lirañik ikusi al-dezu be-ñere?
- J. M. — Zer, zu ere oraindik ofela?
- Mad. — Mutil gazteak baño arego asi da au, agure zartuta lo-reak botatzen.
- Txu. — Zu bezelakoai ez botatzekotan!
- Mad. — Ekatzu azkar kuartilu bat txuritik.
- Txu. — Esan zaiozu etxekoandreari gero bialduko diotela.
- Mad. — Gerorako utzi gabe ekatzu orain.
- Txu. — (*Iari*) Tori (*ematen dio alpargata txuri bat.*) Txuri-tik onena au daukatela esan zaiozu.
- Mad. — Bañan gizona, oso egin altzaizu? Zer da au?
- Txu. — Zure etxekoandreak eskatzen dizuna. Tira, tira, artu ta zoaz azkar emendik, beñiketako gogoakin ez nago ta.
- Mad. — Bañan, erotu altzera.
- Txu. — (*ixilik*) Neska, ez al dakin mikeleteak ikusten banau txuritik ematen kontrabandua egingo digula?
- Mad. — Ene! Eta ez nitzan batere gogoratzen.
- Txu. — Agur, e? Zoaz ondotxo.
- Mad. — Agur, bai.
- Txu. — Gero arte ta etxekoandreari eskumuñak.
- J. M. — Badakizu zure mutila nekez datořela?
- Txu. — Egia.
- J. M. — (Ta bitartean nere Amale kufuna azaldu gabe) Bada len esaten asi naizen bezela.... begira, nik garbi esan-go dizut: Ni, zuk etxean gordeta daukazun gauza baten bila etofi naiz.
- Txu. — (*erdi totelduta ta zer esaten dun ezdakila*). Bañan nik.... nere etxean ezpaidaukat ezer gordeta! Zer ari zera esaten?

## AMAIKAGAÑEN AGEÑALDIA.

### Lengoak eta Balantx.

- Balantx — (*letotik*) Kaxo, Txufut? Ta ekañi al dek txuria? .  
Txu. — Ez diat ekañi oraindik eta aldegin zak azkar ortik neri lana galazi gabe.
- Bal. — Biar izango al da?  
Txu. — Biar? Biziko naizen ere etzekiat.  
Bal. — Agur, motel, agur, gaur ez ago befiketako ta pakean utzi bearko diat. (*joaten da*).
- J. M. — Badakizu zuri egiten dizkitzuten galdera oik afitzen nautela?  
Txu. — Beti ofela ibiltzen dira ni txuliatzen, bañan eguneg batean bat-edo-bati batetik besteraño eztena sartuko diot.
- J. M. — Kontu oieri utzi ta, len esaten ari nintzazun bezela, zuk etxean daukazu.....  
Txu. — (Ezin egon naiz) Bañan ikusten al dezu zenbat denbora pasatzen duen gure mutil likiskeri ofek?
- J. M. — Etoriko da.  
Txu. — (*Txutik jañita*) Nik afapatzen badet, belaitik artuta ekañiko det.
- J. M. — Utzi zaiozu, gizona.  
Txu. — Ez, ta bilatu arte ez naiz etoriko. (*mantala gerñan bildu ta joaten da. Letotik pasatzerakoan*). Beriala ikusiko nauk!

## AMABIGAÑEN AGEÑALDIA.

### Jose Mari ta Amale.

- J. M. -- Baña nora zoaz, gizona?... Gizon ori ez dago burutlik ondo. (*Etxe bañunbeko atera begira*) Oraintxe nuke egokiera edera nere Amale'kin itzegiteko. Deituko ote diot? Ene! ez det orlako bildufik izan. (*txalo joaz*) Eup! Nor bizi da emen?
- Amale — (*bañundik*) Zein da? (*atera ta kaboa ikustean ikaraututa gelditzen da*) Ai nere Jaungoikoa! Kaboa!
- J. M. — (*Lotsati xamar*) Artsalde on, izaña!  
Am. — (Ene! auxen da lana!) Baita zuri ere.

- J. M. —(Au dek mirabea, au!)
- Am. —(*Batera ta bestera begiratuaz*) Ta nere aita? ....Nere aitaren bila etofiko ziñan, e?
- J. M. —(*Xamurki*) Ez, beste gauza obe baten bila nator.
- Am. —Zeruko gure Ama!
- J. M. —(*Amale'ringana ondoratuta eta legun*) Etzenduke asmatuko zeñen bila netofen.
- Am. —Bai, jauna... ez, jauna, ez... ez dakit ba... zuk nai zendukeanik ez daukagu emen... ta gañera nere aita alpargatagile beartsu bat besterik ez da... ta.
- J. M. —Etxean orlako gauzak dauzkana beartsua beraz, e?
- Am. —Etxe bafunbean ez daukagu guk ezer.
- J. M. —Eta zuk (*legun*) ez al dezu ezèr ballo bada?
- Am. —(*afituta*) Zer ari zera esaten?
- J. M. —(*sutsu*) Zu zerala nere biotzeko maiterik maiteena.
- Am. —Ori ez dezu benetan esango, e?
- J. M. —Benetan ez detela esaten?
- Am. —Nik uste nuen...
- J. M. —Zerengatik nabilela uste zenduen egun guztian zure etxe inguruan biraka?
- Am. —Neregatik?
- J. M. —Jakiña bada.
- Am. —Eta ni batere oartu gabe! Auxen da lasatasuna ematen didazuna.
- J. M. —Egitan diozu ori, Amale?
- Am. —Ez dakizu guzi-guzia. Nere altak jakiten duenean!....
- J. M. —Asafetuko ote da?
- Am. —Bai zera... (*ustegabea itzegiten ariñegi ari dala antzematean*) Baña... Jaungoiko maitea, zer ari naiz ni... Ez da erotu banintz ere.
- J. M. —Zuk bai naukazula erotuta.
- Am. —Txorora ote naiz! Nik ezer esan al dizut bada?
- J. M. —Zer, orain ofekin ateratzen al zera?
- Am. —Beste zerbaitengatik ari ziñala uste bai-nuen.
- J. M. —Zer esan nai dezu ofekin?
- Am. —Neronek bai-aldakit... (Auxen da lana).
- J. M. —Ez gero neri ofela jafi.
- Am. —Ustegabea esan baidizut....
- J. M. —Ustegabea? Bañan zer esaten ari zeran esan zaidazu garbi.

- Am. — Ori nik añaxe jakitea da.  
J. M. — Pixka bat maite nazula jakitea naikoa nuke.  
Am. — Urangoan esango dizut.  
J. M. — Ta gaur zergatik ez?  
Am. — Gauza oik bat-batean esaten ez diralako. Gañera gauza batzuek esan gabe asmatzen dira (*Xamurki begi-ratuaz*).  
J. M. — Bañan, Amale!...  
Am. — Oraindik geyago nai al dezu?  
J. M. — (*Pozez*) Ez, naikoa det. Ori poza ematen diozu nere biotzari.  
Am. — Iraunkoña izango ote da?  
J. M. — Nere bizl guztian ez naiz zutzaz aztuko.  
Am. — Ez da ni ere.  
J. M. — Agur bada nere kuñuna... laixter arte.  
Am. — Agur, Joxe Mari, nai dezun arte.  
J. M. — (*Joaten da*) Nere pozarekin ibiltzen ere ia aztu zait. (*Amale'k laguntzen dio atadiraño*).  
Am. — (*alai*) Ametsetan ote nabil! Kabo gizajoa! — Nitzaz txoratua egon ta nik batere antz emangabe. Izango ote naiz tuntuna!

## AMAIRUGAÑEN AGEÑALDIA.

### Amale ta Txuñut.

- Txu. — (*Sartuaz baztar guztitara begira*).  
Am. — Nun ibili da aita?  
Txu. — Jainkoak besterik ez daki.  
Am. — Ez dakizula zein izan dan emen?  
Txu. — Jakingo ez det bada? Kaboa!  
Am. — Nerekin itzegiten egon da.  
Txu. — Zurekin? Ta zer esan dizu?  
Am. — Berofek gutxiena uste duana.  
Txu. — Edozer gauza, likiskeri ofek.  
Am. — Ez beza, aita, ofelakorik esan... Nik oraindikan arkitu deten mutilik jatorrena da ta.  
Txu. — Emakumea, oso erotu altzera?  
Am. — Zergatik dabilela uste dezu gure etxe inguruan?  
Txu. — Gu ondatzegatik?  
Am. — Ez, aita.

- Txu. — Zergatik bada?  
Am. — (*Bera begira*) Nitzaz txoratua dagoalako.  
Txu. — A, tuntuna, emakumeak edozein gauza sinisten de-  
zute.

## AMALAIGARĒN AGEĀALDIA.

### Lengoak eta Leontxio mikeletea.

- Leont. — Artsalde on...  
Txu. — (Oraintxe bai ezin nezakela alde egin) Zer nai zen-  
duke?  
Leont. — (*AsaĀe*) Jakin degu etxe ontan kontrabandoko ar-  
dĀa ta Āapa saltzen dituzutela ta egia ote dan ikus-  
tera bialdu naute.  
Txu. — (*Alabari*) (Ara nun dezun mutil jatĀfa. Platu zaitex  
orlakoekin). Zer ari zera esaten, gizona?  
Leont. — BeĀiketa gutxi nerekin, ta lenbailen esan zaidaizu-  
te zer ta nun daukazuten.  
Txu. — Kaboak esango zizun ori e?  
Leont. — Zer kabo ta zer sarjento... tira, tira azkar, bestela nik  
eramango zaitut bear dan tokira.  
Txu. — Nora?  
Am. — Zergatik?  
Txu. — Au ez da ni bezelako gizon beartsu bati egitekoa!  
Leont. — (*Denda begiratu ta bastar guztiak begiratura ez du  
ezer bilatzen*) Neri ez didazute, gero, ziria sartuko!  
Txu. — A gizon aula ta zitala... Badakigu bai nork esan da  
etoĀi zeran.  
Am. — Ez nuen uste kaboak neri ori egin bear ziranik.  
Txu. — Ez ta nik ere.  
Am. — Ta ni, txoro au, ofek esan zizkidanakin sinistuta.  
Txu. — Nere aĀrean aĀapatuko banu.  
Leon. — Ea, zu, atoz nerekin.  
Txu. — Ni zurekin, nora?  
Leon. — Kartzelara.  
Am. — Nere aita ez da joango emendik.  
Leon. — Begira gero, e! ixo zuk mingain ori.  
Am. — Ez naiz ixilduko.  
Leon. — Tira azkar, ta onean nai ez badezu, lotuta eramango  
zaitut. (*TxuĀut besotik artuta darumaki eta Amale,*

*exerita negařez gelditzen da.)*

Am. —Nere aita maitea (*negařez*) Eřian dan gizonik onena kartzelara... ai! ai!...

## AMABOSGAŘEN AGEŘALDIA.

### Amale ta Kokotx.

Kokotx. —(*sartuaz*) Nere nagusia mikeleteak daramakitela ikusita, ez dakit nola malkoak atera etzaizkiten.

Am. —(*negařez*) Ai! ai!...

Kok. —(*Amale'ri*) Negařez altzaude? Emakumea, ori ez da ezer.

Am. —Ez dala ezer? Nere aita gizajoa kartzelara eramatea ez dala ezer diozu?

Kok. —Aterako dute bai.

Am. —Nik zer egin bear det orain aitik gabe?

Kok. —Emakumea, etzaitetz orla jafi, ni ere emen nago-ta.

Am. —Ez dezazula ofelakorik esan, befiketarako ez nago.

Kok. —Gizajoa! nere nagusiaren arpegiak ildakoena zirudien.

## AMASEIGAŘEN AGEŘALDIA.

### Lengoak eta Joxe Mari.

J. M. —(*lelotik*) Minutu batean ere ezin egon naiz nere kutuna ikusi gabe. Ai ori mirabea dago nere Amaletxo!...

Kok. —Ezin egona egin al-zaizu Amale?

Am. —Ai au lana!... Nere aita maitea!

J. M. —(*Kokotx ikustean*) Azaldu al aiz, mutil?

Kok. —(*atxera salto egiřaz*) Ofa berofen txarkeriengatik nola dagoen.

J. M. —(*lari*) zer gertatu da emen? Zer dezu?

Kok. —Zera... zuk gure etxera kontrabandoa afapatzera bialdu dezun mikeleteak gure nagusia kartzelara eraman du-ta.

J. M. —Zer esaten didazu? (*Amale'ri xamurki*) Amale!

Am. —(*alkitik jaiki ta gořoto bizian*) Etxe ontan sartu ta nere aũean jartzeko lotsik badezu?

J. M. —Bařan zer esaten ari zera emakumea!

Am. --Zuk egin dezuna, gizona danak ez du egiten. Zoaz nere begien aũretik.

- J. M. — Orain ikusiko dezu ni nor naizen. (*Kokotx'i*) Nork eraman du zuen nagusia kartzelara?
- Kok. — Leontxio mikeleteak.
- J. M. — Eta zer kontrabando bilatuko diote etxe ontan?
- Kok. — Ez det uste ezer bilatu diotenik.
- J. M. — Beraz ezer ez? Ta noiz eraman du?
- Kok. — Orain dala gutxi.
- J. M. — Amar minutu bafu Amale'ren aita ezpadago alparga-tegi ontan nik jakingo det zer egin.
- Am. — Ea nere aita gizajoa etxeratzeko bidea egiten dezun.
- J. M. — Ez kezkek izan. Nere maitearengatik ori ta gelago egiteko nago-ta.
- Am. — Jaungoikoaren izenean!
- Kok. — Ea, bada, orlakoren bat egiten dezun.
- J. M. — Nere maitea! Egon lasai, zure aita laixter emen dezu nik ekañita. (*Joaten da*).

## AMAZAZPIGAÑEN AGEÑALDIA.

### Amale ta Kokotx.

- Kok. — (*añituta*) Ikusten detanez kaboa zutzaz txoratua dago, e?
- Am. — Lenago emen izan danean ala aitortu dit beintzat.
- Kok. — (*alai*) Ori orla bada poztu giñezke.
- Am. — Ala alderizkiotzu?
- Kok. — Ez dakizu zuk Mikelete bat noraño iristen dan mirabe batentzat txoratzen danean.
- Am. — Ez dakit bañan gure aita bereala etofiko dala iruditu zait.
- Kok. — Neri ere bai. A zer besarkada eman bear dioten nere añaan ikusten detanean...
- Am. — Baita nik ere.

## EMEZORTZIGAÑEN AGEÑALDIA

### Lengoak eta Balantx.

- Bal. — (*Mozkortuta balantxaka*) Biotzean arantz bat sartuta daukatela iruditzen zait eta konzientziak ez dit agintzen orla kezkaz egotea. (*Letotik*) Amale!
- Am. — Ene, ori mozkofa!

- Bal. —Barkatzen al didazu?  
Am. —Nik zer barkatu bear dizut zuri?  
Bal. —Judas baño paltso aundigoko bat naizelako.  
Am. —Zer diozu, gizona?  
Bal. —Oraintxe ez dakit zer egingo nuken.  
Kok. —Zük? txiki bat ardo edan iñork emanezkero.  
Am. —Zer gertatzen zaizu?  
Bal. —Barkatzen al-didazu?  
Kok. —Au ote da Leontxio Mikeleteari, guk emen ñapa saltzen degula salatu duena?  
Am. —Moskor, txatxu, alena! Ez dakit lotsaz nola erortzen etzeran luñera.  
Kok. —A, ezereza, onek sartuarazi du bai gure ugusia kartzelara.  
Bal. —Nere asmoa etzan ofenbesterañokoa.  
Am. —Zaude ixilik, lan edefak egin dituzu.  
Bal. —Bai; ala da, bañan damutu zait.  
Kok. —Utzi zaiozu mozkoñondo oni, bere burua ere zutik ezin jaso du-ta.

## EMERETZIGAREN AGEÑALDIA

### Lengoak Txuruf eta Joxe Mari.

- Txu. —(*atetik Joxe Mari, alai ta besoak zaballk*) Amale, nere alaba maitea!  
Am. —(*Aitarengana besoak zabalduaz*) Aita, nere biotzeko aita maitea.  
Txu. —(*Joxe Marin'gatik*) Ona emen gu salbatu gaituen gizona.  
J. M. —(*Amale'ri*) Ikusten dezu nik emandako itza nola bete detan.  
Am. —Ta nola moldatu zera nere aita azkatzeko?  
J. M. —Eñez. Bere etxera joan da nere Kapitanari esan diot zure aita nik ondo ezagutzen detala ta, gizon jatorra dala ta, kontrabandoko gauzik saltzen ez duela ta...  
Txu. —Egia; ta orduan bereala azkatu naute.  
Am. —Ta orain nola ordaindu bear dizut zuri ofengatik zor dizutena?  
J. M. —Kapitanari esan diotena ez ukatuaz.



- Am. — Zer esan diozu bada?
- J. M. — Nere andregaya zerala ta...
- Am. — Ai ene! Ez nuke nai ba neregatik beintzat Kapitana-  
naren afean gerzurtitzaz gelditzea.
- J. M. — Nere Amaletxo! Zure itz xamur oek munduan arkitu  
al leiken gizonik zorionekoena egin naute.
- Txu. — Ni ere ofelako gizon jator bat nere alabaren senar-  
gaitzat ikustea postutzen naiz.
- Kok. — Au mundua! Lengo itxiluak ikusita zeñek sinistu bear  
zuen au gertatuko zanik?
- Bal. — Barkatzen al diak, Joxe.
- Txu. — Emen alaiz pixti madarikatua! Nun da eztena?
- J. M. — Au al zan Leontxio'ri salatu diona?
- Kok. — Au bai, arlote au, moxkor-etxe au.  
*(Batek alxia, besteak eskoba, ta besteak eztena artu-  
ta atzetik jaraitzen diote Balantx'eri, onek ta aldero-  
ka ta zalapartan iges egiten du dendatik).*
- Am. — Neuriz erango balu, utsa.
- J. M. — Tartean orain ere madarikatutako edaria. Onek galdu  
bear digu oraindik gure Euzko-eria.
- Am. — Ofek beintzat abereak bezela edaten du.
- Txu. — Ez da sartuko geyago gure etxean arlote ori.
- Am. — Ez da pafarik ere geyago gure dendan.
- Kok. — Alaxe da. Lengo esturasunak ere naikoak ditugu.
- Txu. — Emendik aufera ñapa saltzeari utzi ta alpargategitzari  
geyago begiratu bear diogu.
- Am. — Gaurtik aufera txufut gutxigo ta lan geyago.
- J. M. — Ori da nik nai nukeana. Gauza bakoitza bere neufian.
- Txu. — Len edari txar ta gogofak saltzen alegindu geran be-  
zela orain, edari txafak gizonari zenbaterañoako kalteak  
ekartzen dizkion erakusten alegindu bear degu.
- J. M. — Ta ortarako geok asi bear degu lenbizi erakuspen  
onak ematen.
- Kok. — Ori da, ori!
- Txu. — Bejondaizula.
- J. M. — Ta orain eskaera bat egin nai nizuke.
- Txu. — Esan, esan nai dezun guztia.
- J. M. — Ainbeste maite nauen zure alaba Amale'kin ezkon-  
tzeko baimena emango al diazu?
- Txu. — Bai, ta pozik gañera.


- J. M. —Eskafikasko.  
Txu. —Eta Jaungoikoari nai dakiola egun ori lenbailen irixtea.  
Kok. —Oik bezelako beste biko egokigorik euzki-azpian bi-  
latzea naiko lan.  
Txu. —Esanak esan ta ortik aufera, geroxeago nere kontu,  
nere ilobatxoei euskel-izenak jafi, ta aita-gurea ta gañe-  
rako otoitzak euskeraz erakustea!

**BUKATU DA.**



zuzendari ta gizonak ederki jokatu dute eñaren alde.

Oraingo aldian Antzertia'ren eraberritzea dala-ta, kristautasunezko ta antziñako blideetatik, pantzetafak aitzindari edo dabiltz. "*Nos Spectacles*" (82-Rue de l'Université) ta *Jeux, Tréaux et Personages'* (9-Rue Falguière) Paris'en argitaratzen diran ilabetekariak, gai ontan zer ikasi aundia darakusgute. Gazteiz'ko Karda-beraztafai eskeñi nai nieke el-karte orien albistea. Gheon, Brochet ta gañerako lanetan ba-dago aukera ederik euskeratzeko. Gure antzerki-zaleak ba-dakite nora jo.



### Uruñuela'ren bi antzerki berri.

Uruñuela'tar Josu antzerki-gile gazteak, lengoaz gañera, beste bi antzerki tajutu ditu. "*Oleskarija*" ta "*Ama*" deritzate ta Bilbao'ko "*Campos Eliseos*" antzokian, deun Joseba'ren egunez adalatu zituzten.

Antzerki oriek erderaz idatziak daude naiz eta euzko-gaiz eta legamiz maniatuak izan.

Aien buruz, Lauaxeta idazleak idatzi duan irizketatik zerbait emen aldatzera goaz:

"*Oleskarija*" 'tzaz diño:

"Olertitsuegia dala edo. Eriak txalotu eban bere agorako egokia izan yakolako. Uruñuela jaunaren lanetan olerti lafegi senti daruagu."

"*Ama*" sakonagua degu, abertzaletasunari yagokonerakua. Gai eder baten jafaile gizasemeak erakusten dausku bez euren biotzeko min eta poztasunak. Neurtitzetan egiña degu, me ta azalez. Orain arteko antzerkietan senti ez-togun urduritasuna senti eragin dausku. Bear bada "dramatismo" lafegi. Negañez beti egoteko jaiuak ez-kara-ta....

Uruñuela jaunarengan antzerkigile on bat datza. Egin leiken lana aundia da. Antzerki-bidez euzko-biotzak piztu. Zorionak antzezlariai, antzerkien egileari, ta Euzko-Gaztedi'ko mutil eta neska zintzuei.

Guztien lana txalogafia izan zalako."

*Nik.*



### Naste - Boraste.

Antzerki-aroa bizi-bizi amaitzera dijoa. Efi guziak leiatu dira iskuleai antzerki-jai politak eskeintzen.

Donostia'ko poxpolin-zaleak Kursaal'en eman dioten leku eder eta zabalean, igandero

antzerketa edefak egin dituzte. Bertera otseginda, etofi zaizkie: Donostia'ko Eusko-Etxea, Efenderi, Urnieta, Oiarzun eta Alegi'koak.

Legazpi'n, urtearen asieratik, Goieta guzian dagon areto aundienaren jabe dira. Soraluze'n, Epailaren 19'g. Deun Joseba egunez Abenda-Etxe'ko antzokia zabaldu zan, "Gurutzepe" Lete'tar J.'en idazle Soraluzetafaren artzerki aberkoia antzeztuaz. Afasate'n ikastola ta antzoki befi baten oñafia jafi dute. Tolosa eta

Efenderi lanean gogotsu ba' dira euskel-jolasean areago.

Gipuzkoa ta Bizkai'ko efi askoan—ezin guziak aiatatu—teatro euskelduna edo ta euskotafa beintzat aufera dijoa.

Antzezlari-talde onak ba-ditugu. Orain, antzerkigileak bear dituzte sortu lan atsegin, mamitsu, efikoiak, aiek, ufen-go txandan egitarauak befitu ta osatzeko aukera izan deza-ten.

Zertan daude gure idazle galenak?

*Aspo.*

## 8 PESETA URTEKO!

bestarik ez da ordaindu bear ANTZERTI'ren

arpidedun izateko. Nai duenak, lenbailen

jakin-erazi, laguntza bear degu-ta.

